

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Behar ditugun bazkide eta hornitzaile nagusiak gure proiektuak funtziona dezan hauek dira:

**-Teknikaria edo informatika ikasi duen norbait:** aplikazioa egoki diseinatzeko, eta aldaketak eta berrikuntzak nola instalatzen diren dakitenak. Informatikariek paper garrantzitsuenetariko bat dute: aplikazioa sortzea eta arazo informatikoei aurre egitea. Informatikariek egiten dituzte ikerketak, diseinua eta barneko funtzionamendua kontrolatzen duten programetako garapena. Bestalde, programak azkarrak, aldakorak eta eraginkorrak garatzen dituzte, sistema informatikoko analista batek emandako aholkuei jarraituz.

Bere helburua aplikazioa era eraginkorragoan funtziona dezala lortzea da.

**-Marketing eta publizitate zuzendaria:** Planifikatzea, diseinatzea, proiektua ezagutaraztea eta publizitate-kanpainak egiten dituen norbait oso garrantzitsua da. Azken finean, interneten sare sozialak eragin handia dutenez, hor publizitatea jarriz eta “influencer”ekin lan egiten gazteen artean ezagunak izatea lortuko genuke.

**- Bazkideen aldetik:** Bazkidea sozietate baten kontratuko zati bakoitza eskuratzen duen pertsona da. Kontratu horren bidez, bazkide bakoitzak kapital jakin baten ekarpena egiteko konpromisoa egiten dio sozietateari, etorkizunean etekin ekonomikoak lortzeko helburuz. Bi buruk bat baino hobeto pentsatzen dute. Arrakasta lortzeko gakoa, ekintzaileak haien bazkideak ondo aukeratzea da. Hauek enpresa haztera lagunduko dute; eta batez ere, negozioa momentu txarrean dagoenean bazkideek lagundu behar dute, bai ekonomikoki, bai sozialki.

Erabakigarria izan daiteke ideia berritzaileak dituen pertsona bat edukitzea zurekin lan egiten, azken finean, emaitzak hobetzen direlako. Gainera, startups-etan bazkideak izatea ezaguna izatea eta etorkizuna izatea esan nahi du, hedapena eta hazkunde posible bat izateko lagungarriak direlako.

Beste alde batetik, banako bakoitzak pentsaera bat dauka eta egoerak beste modu batean ikusten dituzenez, lagungarria gerta daiteke hainbat ikuspuntu izatea. Bere berezitasunekin, bi edo pertsona gehiago helburu berarekin lan egiten badute, berrikuntzan eta hazkunderen kontzentratuta, arrakasta gehiago suposa dezake hainbat bazkideren esperientzia eta ikuspuntua izatea.